



## DIAGNOSTIKORAKO POLISOMNOGRAFIA ETA LOALDIAREN LATENTZIA ANITZEKO TESTA (TLMS) HAUR ETA NERABEETAN.

### ZER DA POLISOMNOGRAFIA ETA BIHARAMUNEKO TLMS-A?

Proba honek loaldian arnasketa eta garunaren eta giharren jardura neurtzeko aukera ematen digu, zure loaren kalitatea eta kantitatea baloratzeko. Proba konplexua da eta, ondorioz, ospitalean egin behar da. Zuen semearen edo alabaren kasuan, proba TLMS batekin osatuko da. Hau da, polisomnografia egin eta biharamun goizean 20 minutuko 4-5 siesta egingo ditu 2 orduko tarteetan. Test horren helburua da loa objektiboki neurtzea. Beraz, zuen semeak edo alabak gau bat eta hurrengo goiza igaroko ditu ospitalean. Proba hurrengo eguneko 15 edo 17etan bukatuko da garapenaren arabera.

**Probaren helburua** da zuen semeak edo alabak loaren nahasteren bat ote duen baloratzea, zer larritasun duen zehaztea eta, behar izanez gero, tratamendua jartzea.

### NOLA PRESTATU BEHAR DA HAURRA PROBARAKO?

Gurasoekin telefonoz hitz egingo da aurrez, loaren azterketa zein egunetan egin finkatzeko. Probaren egunean haurrak eguneroko bizimodua egin behar du. Etorri behar du Unitatera 21:00 aldera, afalduta. Haurrak botikaren bat hartzen badu, berekin ekarri beharko du eta erizainari jakinarazi beharko dio guk eman ahal izateko. Beste horrenbeste beharizan dietetiko bereziren bat izanez gero.

Komenigarria da burua garbituta etortzea. Haurrak etxetik kanpo gau bat lo egitera joan behar duenean bezala prestatu behar dute gurasoek dena (pijama, garbiketarako poltsatxoak, etab.). Egokitzea errazteko, gurasoek edo senideek (gehienez ere bi) baimena dute probaren hasieran egoteko. Baina behin proba hasitakoan pertsona bakar batek egin ahal izango du gau osoan haurrarekin.

### NON ETA NOLA EGINGO DIDATE PROBA?

Gurasoek umearekin joan behar dute **LOAREN UNITATE-ra Santiago egoitzako B pabiloiko 2. solairura** aurretik adierazita dagoen orduan. Itxarongelan egon behar duzu artatua izan arte.

Haurrak banakako gela lasai eta isil batean egingo du lo, eta ohe artikulatu batean. Gurasoek ohearen urrutiko kontrola izango dute eta haurra eroso egon dadin ohea goratzeko edo beheratzeko aukera izango dute. Buruan, toraxean, sabelaldean eta zangoetan kable batzuk jarriko dizkiogu aparailu batzuei konektatuta. Aparailu horiek loaren kantitatea eta kalitatea jasoko dute eta aukera emango diete medikuei gaixotasuna diagnostikatzeko eta tratatzeko. Telebista-kamera batzuk piztuta izango dira probak dirauen bitartean; kamera horiek ziurtatuko digute haurra uneoro zainduta dagoela. Gau osoan erizain espezializatu batek gainbegiratu eta zainduko du haurra. Gurasoek aukera izango dute erizainarekin hitz egiteko edozein unetan.

Proba biharamunean, arratsaldeko hirurak aldean amaituko da. Haurrak Loaren Unitatean gosalduko du eta bazkalduko du. Kableak kendutakoan bainugela bat izango duzue garbitzeko. Agiriren bat behar izanez gero, proba amaitu ondoren ate nagusia dagoen harrera zerbitzuan eskatu behar duzu.

Probak ez du arriskurik, ez du minik sortzen eta deserosotasuna oso txikia da; etxetik kanpo kable batzuk jarrita lo egin beharrik sortzen duena besterik ez.

### NON JASOKO DITUT PROBAREN EMAITZAK?

Loaren azterketa egitera zatozten gauean, kontsultarako hitzordua finkatzeko orri bat emango zaizue. Kontsulta horretan, mediku espezialista batek txostena eman eta probaren emaitzak azalduko dizkizue eta tratamendua adieraziko dizue behar izanez gero. Gomendagarria da emaitzen kontsultara haurrarekin batera joatea.